

Ekonomia eta arrazionaltasuna (II)

Askoren astoa goseak hil?

Egilea: Enekoitz Etxezarreta

Webgunea: www.gaiak.net

2013/02/24

Hala baieztatzen du esaera zaharrak. Fatalitatea balitz bezala. Askoren artean zaindu beharrekoa, edo askok balia dezaketen ondasuna, hondatu egiten dela berandu baino lehen. Guztion ondasuna, guztion hondamena, omen. Gure pentsamenduan sustrai sakonak utzi dituen ustea dugu hori, arrazionaltasun ekonomikoren batekin zerikusia duena. Azter dezagun sakonago.

Garret Hardin ekologista amerikarrak bota zuen lehen aldikoz: "The Tragedy of the Commons" ("Komunen tragedia") titulupean argitaratu zuen artikuluan, 1968an, ekosistemen iraunkortasun ezaren arrazoi gisa horien kudeaketa desarautua jarri zuenean. Belaze eta artzainen adibide jadanik klasikoa da aipatu zuena: belaze bat bere abelburuak bazkatzeko nahi adina artzainek erabili badezake, artzain bakoitzak ahalik eta abelburu gehien sartzeko tentazioa senti lezake, berak horren trukean jaso lezakeen etekina beretzat soilik baita, eta sor litekeen kaltea, aldiz, artzain kolektibo osoarena.

Kostu-irabazien arrazionaltasun horrek, beraz, kontuak nahiko argi ditu: etekinak soilik niretzat badira har ditzaket nire gain zerbait egitearen kostuak; kostuak denon artean partekatuz etekinak niretzat soilik izatea lor badezaket, ederra pagotxa. Eta hartatik komunien tragediak eta beste hainbat tragedia (Bankia, Bárcenas eta enparauak). Horiek ez dira, ordea, ditugun arrazionaltasun ekonomiko bakarrak, ez eta ere noski, bizitzeak merezi duen gizarte batean bizitzeko indartu beharrekoak ere.

Ostrom-en belaze eta artzainak

Elinor Ostrom, 2009ko Ekonomiako Nobel sariduna ezagun egin da "Komunen tragedia" hori halakoa ez dela frogatzearen. Hardin-ek ez baitzuen behaketa zuzenik egin aipaturiko teoria proposatzeko. Ostrom-ek, aldiz, bai: Afrikako artzainen lur-erabileraren eta Nepalgo ureztatzesistemen analisiaren bitartez frogatu zuen askoren astoa ez dela zertan gosez hil behar.

Hori frogatzeaz gain, ondasun komunien definizio zehatzagoa proposatu zuen: Hardin-en belazea ez litzateke ondasun komun bat, ondasun libre bat

baizik, akelarre hutsa. Izan ere, Samuelson ekonomialariaren irizpideei tiraka, ondasun komun batek honako ezaugarri hauek ditu: alde batetik, ondasun lehiakidea da, mugatua den neurrian. Hortaz, norbaitek erabiltzen badu besteek ondasun hori erabiltzeko duten aukera gutxitu egiten da. Ondasun publikoak lirateke, kontrara, ez lehiakideak. Demagun farola argiztatu bat kale ilun batean: behin piztuz gero, edonork balia dezake, eta aldi berean nahi bada.

Neurri batean ondasun lehiakideak izateaz gainera, ez baztergarriak ere badira ondasun komunak. Baztergarritasun hori ondasunaren titulartasunarekin erlazionatua dago: airea, ura, itsasoa, denbora... nork esan diezaioke ba beste inori horietarako eskubiderik ez duenik?

Ondasun komunak, hortaz, mugatuak dira: bai fisikoki eta baita erabiltzaile kopuruari dagokionez ere, baina ez genuke esango hargatik ondasun pribatuak direla. Zinez, Rodoták dioenari eutsiz, ondasun komuna ez da beste jabego mota bat, pribatuaz eta publikoaz apartekoa, jabego nozioaren kontrako adiera da. Ondasun komun bat ezin hereda liteke, ez eskuz aldatu ezta desjabetu ere. Ez gara komunaren jabe, horren parte gara, zerbait izatera. Irispidea da ondasun komunaren giltzarria: ez da inoren propietatea eta denek lukete horretarako irispidea.

Hori bera frogatzen du Ostrom-ek ondasun komun horien kudeaketa aztertzen duenean eta bi ondorio argi agerian uzten ditu: lehenik, ondasun komunak goitik behera araututako ondasunak dira, eta bigarren, ondasunaren erabiltzaileak dira kudeaketaren kontrola duten bakarrak, erabakitze mekanismo kolektibo konplexuak ezarriz. Autoeraketaren ernamuintan geundeke.

Historiaren balantza

Arrazionaltasun ekonomikoen talkatik harago, argi da aipaturiko dilema horrek historiaren bilakaera gidatu izan duela, neurri handi batean, XIX. eta XX. mendeetan. XIX. mendea Industria Iraultzaren eta merkantilizazioaren mendea izan zen, eta ideario liberalak gogor eragin zuen honako sineste honetan: "Ondasun bakoitzak behar du bere jabe pribatua, eta estatua da jabego pribatuak dagozkien pertsonen esku direla zaintzeaz arduratuko dena". Ondasun komunaren balizko tragedia oraindik frogatu gabea izan gabe ere, soluzioa estatu liberalaren ordenan ezarri zen: merkatu pribatua eta estatua horren zaindari. Kultura-aldaketa horren oihartzunak heldu ziren Euskal Herrira nola ez, bai gogor heldu ere. Madozen desamortizazioak dira horren lekuko argi: herri-lurrak eta herri-ondasunak estatuaren esku utzi zituen, Bizkaian eta Gipuzkoan genuen lur komunalen tradizioa suntsituz.

Hogeigarreneko tentsio eta gatazka politikoak, aldiz, ondasun kolektiboaren kudeaketa pribatuaren eta publikoaren aldekoen talkatik uler litezke. Sistema sozialistak han eta sozialdemokratik hemenean, ondasun komunaren

pribatizazioaren aurkako kontrapisuak izan dira, neurri batean garaituak edo asimilatuak izan direnak. Baina nor ausar liteke esatera, ikusten ari garenak ikusita, zer komunak kudeaketa pribatua dela sistemarik eraginkorrena? Nekez.

Joan Subirats-ek dio abagune interesgarria zabaldu duela agian hogeitabatak, historiaren balantzak komunaren ideari zentraltasun berri bat eman ote dion susmoa baitu. Alde batetik, orain arte mugarik gabeak ziren zenbait ondasun mugatuak direlako kontzientzia zabaldu baita, eta, hortaz, hizkera ekonomikoan lehiakide: ura, airea, lurra, energia, etab. Bestalde, itxuraz ondasun baztergarri zirenak, teknologia berrien garapenari esker, guztion eskueran egoteko moduak bilatzen joan gara, esaterako kulturaren, ezagutzaren, sorkuntzaren edo artearen. Horiek guztiak ondasun komun gisa ulertu eta teorizatzea ontzat joz gero, historiak abagune berri bat eman liezaioke autoeraketaren nozioari, bere buruaren jabe diren kolektiboen kudeaketa eredu komunitarioari. Hortaz ere, badakigu zerbait gure inguruotan.